

# KU KLUX KLAN AISIALDIRAKO ELKARTEA, 1934-1936

Jose Luis Insausti Urigoitia

Nire umiltasun eta gauza literarioekiko zaletasun simple hone-tatik, aitortu beharra daukat, nire idazkietan isladatzea gehien atsegin dudana, nire herriko istorio samurrei buruz topatzen dudan guzti hori dela. Bizitzeko era batzuen distirak diren eta bizitzeko beste estilo berriengatik, harremantzeko beste moduengatik, azken finean, bizitza bera ulertzeko estilo berriengatik desagertzen joan ziren istorio samur horiek.

Atzera begiratzen dut, Oreretaren bizitzaren lehenengo irudietara; orduan txikiagoa eta politagoa zen. Nire haurtzaroen amestutako Orereta, ez da izandakoa, baizik eta amesten eta amestuko dudana, banaketa luzea izan delako, luzeak urteak eta ugariak berrikuntzak, argazki zahar horixka batzuk ikustarazi eta sentiarazi didaten arte. Gure oroimenatik berreskuratzeko balio duten unearen oroitzak dira. Eskenak, ikuskizunak, ekintzak, etab. oroimenean pilatzen doazenak.

Jakin badakigu argazki eta oroipen hauek atsegin handiz jasozten dituztela -beren adina dela eta- gutxi gora behera urruneko garaiak ezagutu zituztenek, eta jakinahi handiz beste askok -garai haietan oraindik jaioak ere ez ginenok-. 1934.

urtean kokatzen den honako artikulok hau kasu, nahiz eta denboran urruti izan, oraindik dirauelako oreretar askoren oroimenean Ku Klux Klan Aisialdirako Elkarteak izan zenaren oroipena.

Bazen Oreretako gazte talde bat, sagardotegi giroan oso eza-guna zen lagun taldea, eta haletako gazteren batetik -nor izan zen zehaztea ezinezkoa zait- elkarte gastronomiko bat eratzearen ideia jaio zen. Ideiak harrera ona izan zuen guztiengatik, 1934ko Abuztuan lehenengo bilera egin zelarik eta Urrirako estatutuak zein burutu beharreko jarduerak landuak zituztelarik. Jarduera hauek mendi iterearak ziren, Gipuzkoako zenbait herritar txangoak eta Touringarekin joan-etorriak, etab, baina jarduera nagusia gastronomikoa izan zen batez ere.

Elkarteak 1934ko Abenduaren 5ean eratua izan zen, Ku Klux Klan Aisialdirako Elkarteak izenarekin, eta Biteri kalean, Mateo etxearen behe solairuan kokatua. Aipatu urteko Abenduaren 29rako finkatu zuten elkartearen zabaltea, jatordu galantarekin ospatuz.





Bazkide fundatzaileak hogei izan ziren eta hauek dira beren izenak:

**Behoko lerroan, eskubitik ezkerrera:**

Joxe Landa, Joxe Antonio Retegi, Joxe Salegi.

**1go. lerroan eseriak, eskubitik ezkerrera:**

Facundo Insausti, Anselmo Etxegoien, Joxe Kruz Larre, Xanti Aseginolaza (Lehendakaria), Melxor Etxegoien, Antonio Garcia.

**2. lerroan zutik, eskubitik ezkerrera:**

Jaime Iriberry, Juanito Hernández (Lehendakariordea), Joxe Odriozola, Karlos Larre, Joxe M<sup>a</sup> Samperio, Alfonso Maudes.

**3. lerroan zutik, eskubitik ezkerrera:**

Florencio Zalakain, Antonio Fernández, Joxe M<sup>a</sup> Narvarte, Salvador Larrañeta (Idazkaria), Luis Etxeberria.

Baina denbora aurrera doa gupidagabe eta bazkide kutun haietatik, elkarte atsegin haren fundatzaileetatik, bakarrik Karlos Larre da gure artean, gainontzekoak hil egin ziren.

Otsailaren arratsalde batez Karlos Larrerren etxera joan nintzeanean Ku Klux Klan Elkartean emandako bere gaztaroko urte haiek gogoratu eta hitz egiteko, oso maitekiro eta harrিতa hartu ninduen hain gaztea den norbait aipatu elkartearengatik interesa azaltzeagatik. Elkarrizketari ekin genion eta elkarte kokatua non zegoen aipatzen zidan heinean, behin eta berriz errepikatzen zizkidan oroipen polit haiek. Baina fundatzaile guztiak agertzen diren argazkiak erakutsi nizkionean, orduan, benetan hunkitu zen unea izan zen, “denak gaude eta, zein poza haundia eman didan berriz denak ikusi ahal izatea eta oroitzea, baina pena ez daudelako gurekin” zioen.

Karlos Larrek aipatu zidanez, nahiz eta fundatzaile ez izan eta argazkietan ez egon, Lino Ros eta Angel Oses, biak ere hilak, beti zeuden besteekin batera elkartean. Beste argazki batzutan dagoena Gabino Larrain dela aipatu nion, zeinekin hitz egiten egon nintzen, eta gainontzeko bazkideak baino gazteagoa zela erantzun zidan, baina Ku Klux Klaneko taldearekin irtezen zela.

Aipatu elkartearen berri izan nuenetik, Ku Klux Klan izenaren zergatiarekiko jakinahia izan nuen, eta berak esan zidanez, “urte haietan Ku Klux Klan izena asko entzuten zen eta ez ongi, ziur aski izen hau eman genion sekta horrek eragiten zuen izua eta ikararengatik”.

Baina behin eta berriz azpimarratzen zuen bazkideetako inor ez zela arrazista ez eta antzerako edozer, sendi behartsuak ere laguntzen zituztela eta politikoki ere beraien artean desberdintasunak izanik, hala ere, oso lagun onak izan zirela fundatzaile eta bazkide guztiak.

Gau Txori elkartearekin batera Oreretako lehenengo bi elkarte gastronomikoak izan zirela ere esan zidan, Gau Txori 1934ko apirilean eratu zelako ehiztari elkarte gisa, Madalena kalean kokatu eta geroago Vicente Elizegi kalera pasa zutela, hau da, apiriletik abendura bitarteko hilabete horiek banatzen dituzte biak.

Aipatu herrian bertan zein herritik kanpo, Ku Klux Klan elkarteak bere funtzionamenduan zehar sustrai sakonak bota zituela ere.

Baina bazkide kutun haiek egindako lan guztia 36ko Gudaren etorrerarekin puskatu egiten da. Biztanlegoaren gehiengo bezala Oreretatik alde egin behar izan zuten gudaloste desberdinetan sartuz, nahiz eta bazkideen gehiengo Larrañaga Gudalostearen partaideak izan ziren. Horrela desagertu zen Ku Klux Klan elkarte.

Guda bukatuta, zenbait bazkidek elkartearen atea berriz zabaltzeko gaia berrartzea pentsatu zuten, baina ez zuten indar nahikorik izan, ondorioak latzak izan baitziren.

Datu gisa aipatu, Gau Txori elkarteak funtzionatzen jarraitu zuela, baina elkarte berriak eratzeko, ordea, urteak pasa behar izan zutela: Alkartasuna elkarte 1951n; Txepetxa ondoren, urte berean; Amulleta eta Gure Toki 1953an, e.a.

Oarso aldizkariaren lerro labur hauetatik omenaldi txikia egin, Ku Klux Klan elkartearen berri eman eta Oreretako seme jator haien lana, maitasun eta eskerronez gogoratu nahi izan dut. ✍



OHARRA: Eskerrak eman nahi dizkiet Avelin Salaberria eta Angelita bere emazteari, Gabino Larrain eta Karlos Larreri beren laguntzarengatik, baita gogoratu ere nire ama zenak emandako argazkiekin lotutako informazioa.



Ku Klux Klan  
Elkartearen Fundazio -  
Oturuntza.